


# STM

San Telmo Museoa

Zuloaga plaza 1  
20003 Donostia – San Sebastián  
Telefonoa: 943 48 15 80  
santelmo@donostia.org  
[www.santelmomuseoa.com](http://www.santelmomuseoa.com)

San Telmo Museoa 

## ARTEAREKIN JOLASEAN: EDUARDO CHILLIDA

**Irakasleentzako koaderno**

Lehen Hezkuntzako Irakasleentzat



## Helburuak

- San Telmo Museoko Arte Ederretako bildumak ezagutzea.
- Plastika eta arte-hezkuntzarekin erlazioatutako oinarriko kontzeptuak lantzea, collagearen bidez errealitatea birsortzeko gaitasuna, bereziki.
- Eduardo Chillidak eta batik bat haren lanak euskal arteari egindako ekarpena ezagutaraztea.
- Ikusitakoa praktikan jartzea tailerrean, hartara norberaren sormena erabilita.


## Hartzaileak

Lehen Hezkuntzako ikasleak.

## Metodologia

Jarduerak Arte Ederretako erakustareto iraunkorrean bisitaldi gidatua eta hezkuntza tailerreko ariketa hartzen ditu bere baitan:

- Arte Ederretako aretoa: Chillidaren hainbat artelanen azterketa.
- Hezkuntza tailerrean: sormena eta esperimenezioa sustatzen dituen tailer ludikoa.



## SARRERA:

Proposatzen den ibilbidea talde osoak batera gidari batekin egiteko pentsatua da.

Jarduera honen helburua Eduardo Chillidaren obra ezagutzeko da, haren bizitza eta lan artistikoaren garapena azalduz. Horretarako, San Telmo Museoa topa dezakegun hainbat artelan aztertzeaz gain, artelan horiek modu praktiko batean osatuko ditugu.

San Telmo Gizarte Museo bat da; alegia, iraganera begira etorkizunari heltzeko erronkak azaltzea da asmoa. Hartara, askotariko gaiak jorratzen ditu; horien artean, euskal artisten inguruko hausnarketa egiten du. "Artearekin jolasean" programa didaktikoa pinturaz, eskulturaz eta oro har arteaz gozatzen ikasteko ekintza esperimentalak proposatzen ditu, modu jolasgarri eta dibertigarrian begiratzen, gozatzen, sentitzen eta sortzen ikasteko aukera emanez. Horretarako, San Telmo Museoko pinakoteka laborategi bihurtuko dugu, eta bertako pieza ikusgarriak erabiliko ditugu baliabide.

Ikasitakoa praktikara eramateko tailer didaktikoa erabiliko dugu, bertan zenbait materialez eta kolorez gozatuz eta jolastuz sortu ahal izango dugu, zikintzeko beldurrik gabe; baina, batez ere, gure txikien lanak epaituak izateko beldurrik gabe, azken batean haur guztiek barnean sortzaile bana eramaten dute eta.

Jarraian proposatzen dugun jarduera Arte Hezkuntzarekin eta sorkuntza-prozedura eta teknikekin erlazionatuta dago, eta gure Arte Ederretako bildumekin lan egiteko gaia da.



## BISITALDIAREN PROZEDURA:

### Bisitaren hasiera:

Ongietorria, Museoaren eta jorratu beharreko gaien aurkezpena.

### Ariketak goiko klaustroan Euskal Artearen aretoan eta Hezkuntza tailerlean:

Jarduerak Euskal Artearen erakustareto iraunkorrean bisitaldi gidatua eta hezkuntza tailerreko ariketa hartzen ditu bere baitan:

- Euskal Artearen aretoan: Chillidaren hainbat artelanen azterketa (30-45 min.).
- Hezkuntza tailerlean: Pinakotekan ikusitakoa praktikan jartzea (45 min.).



Goiko klaustroko Euskal Artearen aretoan dauden lanetara inguratuko dira ikasleak, eta bertan Chillidak bere lanak egiteko erabilitako teknikak eta prozedurak ikusiko dituzte.

Ahazkotasuna nagusi izan arren, materialen erabilpenak berebiziko garrantzia du jarduera honetan.



# ARTEAREKIN JOLASEAN: Eduardo Chillida

Hona hemen, goiko klaustroko Euskal Artearen aretoa planoan, ariketaren lehenengo atala egingo den kokalekua.



Ariketa San Telmo museoko Euskal Artearen aretoan hasiko dugu. Bertan, ikusleen begirada zabaldu eta arte garaikidearen inguruko sentsibilitatea garatzen eta sustatzen saiatuko gara, galderen eta batez ere begirada eta hausnarketaren bitartez.

*OHARRA: Bi talde batera jardunbide berean arituko balira, bata hezkuntza tailerrean eta bestea pinakotekan has litezke, eta gero txandatu, denbora aldetik talde batak bestearen zain egon beharreko tartea albait laburren izateko.*

Chillidaren hiru lan begiratu eta aztertuko ditugu, bere bizitza eta lan artistikoaren garapena esplikatzuz.

Hauek dira aztertuko ditugun hiru lanak:



*Titulu gabe  
1968 - Harzuria*

• **Harzurizko piezaren aurrean:**

Pieza hau zer iruditzen zaien galdetuko diegu, eta bertan azalduko dugu, harzuri edo alabastroa harri mota guztien artean bigunenetakoa dela, lantzeko orduan; izan ere, harrien artean gogortasun mailak badaudela jakinaraziko zaie. Adibidez, marmola oso gogorra denez, eskultoreek harri hori aukeratzen badute, hain da gogorra material ezen diamante batekin moztu eta lantzen baitute.



*Eskua  
1962 - Apar-harria*

• **“Eskua” obraren aurrean:**

Sumendi-harritan egindako lana aztertuko dugu: Chillidak sumendizko harri xafla bat hartu, xafla horren gainean zizel batekin marrazkiak egin eta baxuerliebezko artelan bat sortu zuen.



*Euzkadi  
1976 - Akuatortea*

• **Grabatua zuri-beltzean:**

Chillidari gehien gustatzen zitzaion kolorea BELTZA zen. Era berean, paper zatiekin bi dimentsioko obrak egitea asko gustatzen zitzaionez gero, gisa horretako lan ugari utzi ditu.

Hiru lan hauek aztertu ondoren, Hezkuntza tailerrera joango gara eta bertan Euskal Artearen aretoan ikusitakoa praktikan jarriko dugu. Ikasle bakoitza bere tokian jarriko da, buztin zati bana eman eta nola landu dezaketean esplikatu diegu:

- **Espanja zatia buztina hezetzeko erabiltzen da, biguntasun malgutasun gehiago lortze aldera. Kontu izan behar da ur kantitatearekin:** ur gutxi erabiltzea komeni da.
- **Zurezko tresnak:** Buztina zatitzeko, zulatzeko edota buztinaren gainean markak egiteko balio dute.

Tailerrari hasiera emango diegu halako azalpenak eman ondoren. Norbaitek zalantzak edo zer egin argi izango ez balu, liburuak eskainiko dizkiogu ikusteko, lagungarri gisa.

Ikasleek buztinezko lanak bukatu ahala mahai baten atal batean utziko dituzte eta, nahi izanez gero, azalpen bat emango dute hari buruz.

